

## Hiru proiektu Atsegindegi berrirako

■ Estalitako lekua eta 150 aparkaleku inguru joango dira lurpean ■ Azkeneko proiektua Asfaltos Naturales de Campezo eta Gedi Taldeak egingo du, aste honetako Plenoak aho batez hala erabakita.

ASFALTOS Naturales de Campezo eta Gedi Taldeak egingo du Atsegindegi berrirako proiektua. Lau enpresak aurkeztu dituzte beren proposamenak. Aurrena, Jose Antonio Cuestak zuzentzen duen Obra Batzordeko aukeratu zuen zeinek egingo duen diseinu berria eta aste honetan Plenoak aho batez onartu du erabakia.

Aukeratuko enpresak hiru proiektu aurkeztu ditu Atsegindegirako, bai teilturako eta bai lurrazpiko aparkalekurako. Orain etorriko da hiruretako bat aukeratzera edo hirurekin proiektu bat osatzea.

### Teiltu diseinuak




Aukeratutako enpresak esku-biko argazkietan ikusten diren hiru teiltu diseinu horiek jarri ditu mahai gainean. Diseinuz ez ezik, material aldetik ere desberdinak dira. Bat ondulatua eta egur laminatuarekin egingo da; bestea kaida lau aldetara duena; eta hirugarrena egurrezkoa eta metalezkoa da, biak konbinatzen dituena. Orain Obra Batzordeari dagokio hiruretatik bat aukeratu eta hirurekin bat osatzea.

### 150 aparkaleku eta bi ateera lur azpiko parkinean

Atsegindegiko lur azpiko aparkalekuak 150 kotxerentzako lekua izango du, gutxi gora behera. Parkinerako ere 3 proposamen daude, baina, aparkaleku kopuruan ez dago alde handirik. Parkina bi ateera izango ditu.

### 14 hilabete eta 900.000 euro

Asfaltos Naturales de Campezo eta Gedi Taldeak Atsegindegirako egindako 14 hilabeteko obra aurreikusten da eta Udalak 900.000 euro jarri beharko ditu. □



Atsegindegi berrirako hiru diseinok. Horietako bat edo moldaketak bat izango da benetakoa.

## ■ ERRUGBIA

### Hernanik partidurik galdu gabe jarraitu nahi du gaur

HERNANIK Ejearen kontra jokatuko du gaur, Landaren, eguerdiko 12:00etan. Benbenen mutilak liga hasiera latza egiten ari dira. Orain arteko partidu denak irabazi dituzte eta gaurkoa ere aurrera atera nahi dute sailkapenaren goiko muturrean jarraitzeko.

Bestalde, Euskal Ligan Hernani Bk Gaztegi hartuko du Landaren, 11:00etatik aurrera. □

## ■ FUTBOLA

### Hernani-Añorga

EMAKUMEEN Ligan Hernanik Añorgaren kontra jokatuko du gaur Landaren. Markos Trejok zuzentzen duen ekipoa puntu beharrean dabil. Partidua gaur, 11:30etan, Zubipen. □

## HERNANI INSTITUTUA

### Hitzaldia guraso eta seme-alaben arteko komunikazioa hobetzeari buruz

JUANA Mari Maganto psikologoa hitzaldia emango du guraso eta seme-alaben arteko komunikazioa hobetzeari buruz. Hitzaldia asteartean da, Biterin, 18:30etan, eta Hernani Institutuak antolatuta du gurasoekin antolatzen dituen topaketan barruan. □

### Ashok Iturriza Gipuzkoako arrantza finalean

ASHOK Iturriza hernaniar gazteak Gipuzkoako Kostaldeko Arrantzako finala jokatuko du gaur Hondarribian. Iturriza Txanxangorriko itsas arrantza taldeko kidea da. □

**TXINTXUA**  
HOTELA

Tel.: 943 33 17 50  
943 33 36 80  
Faxa: 943 33 18 35

Zikuñaga auzoa 72  
20.120 HERNANI

GELAK komona  
telebista  
Internet

KAFETEGIA  
APARKALEKUA

PREZIO BEREZIAK  
TALDE ETA  
ENPRESENTZAT

SAGARDOTEGI  
ZIRKUITUTOTIK  
OSO GERTU

e-maila: HTrepcion@hotel-txintxua.com - Web: www.hotel-txintxua.com

**Jatetxea**

*Venta Berri*

Arano - Nafarroa  
(948) 51 40 18  
Larunbatetan itxia

**SANTA BARBARA**  
PEUGEOT

Tailerrak: Larramendi15 - Exp: Arantzazu 15 ☎ 943 551139 / 943 551979

Auto eta furgoneta zaharrak, 2. eskukoez aldatzen ditugu

406 Diesel HDI 110	- Aire egokitua	12.822 €
Ford Escort Turbo Diesel		4.507 €
Berlingo Diesel	- Aire egokitua	8.816 €
Jeep Cherokee TDI	- Aire egokitua	9.818 €
Fiat 1 3 ate Diesela		2.885 €
Land Rover - Pik NP	- Aire egokitua	2.855 €
Saab Coupe 2.000	- berri berri	5.812 €
Rover 45 Turbo Diesela	- Aire egokitua	9.616 €

...eta hainbat kotxe merke



Mendizale Asteko diapositiba lehiaketako sarituak.

## Tijero, Baiona, Moreno eta Vilches irabazle Mendizale Asteko diapositiba lehiaketan

Umei dominak eman zizkieten mendi ibilaldiak egin izateagatik.

MENDIRIZ Mendik ostira-lean banatu zituen 24garren diapositiba lehiaketako sariak. Bildumarik onenaren saria Pedro Vilchesek irabazi zuen; paisajerik onenarena, Iñaki Baionak; Hernani gai bezala

hartuta Garbine Tijeroren diapositiba aukeratu zuen epai-mahaiak eta argazki sinpatikoena, berriz, Maximo Morenok ateratakoa izan zen.

Umeak ere protagonista izan ziren ostiraleko ekital-

dian eta aurre egindako mendi ibilaldiengatik domina jaso zuten. Mendizale Aste arrakastatsua gaur bukatuko da. Mendiriz Mendik Bazkide Eguna izendatzen du eta mendi irteera egingo dute. □

## Etxerateg Algecirasen dauden presoek egoera salatu du

Presoak isolamenduan daude eta zikinkeria greba egiten ari dira.

ETXERAT Elkartek adierazi du Algecirasen dauden presoak oso egoera larrian daudela. Ostiraleko enkarteladan arazo teknikoengatik zabaldu ezin izan zuen komunikatua, Etxerateg dio Algecirasen presoak bi urte daramazkitela isolamenduan eta gaur egu-

nean bakartze galerietan sakabanatu dituztela. Horren aurrean, presoek zikinkeria greba hasi dute. "Presoak kaka eta pisa ziegatik kanpora botatzen dute, galeriara. Funtzionarioek berriz, ziega barrura bueltatzen dute zikinkeria guztia, eta azken boladan gai-

nera dena bustitzen dute ura presoan botata. Uraren indarrarekin presoak paretaren kontra bota eta dena egiten dituzte" dio Etxerateg.

Presoek bisak astebarrura aldatu dizkiete. Etxerateg Juan Mari Olanoren estradizioa ere salatu du. □

## Mahai ingurua herritarrek erabaki ahalmena berreskuratzeaz

Hizlariak Antonio Eskalante (antimilitarista) Jakue Paskual (soziologoa) eta Patxi Egilaz (AHTren kontrako taldea) dira ■ Andragoton, asteartean, 19:30etan

DONOSTIA-Oarso-Bidasoa eskualdean jardunaldiak egingen ari dira Abiadura haundiaz nora goaz lemaekin. Jardunaldi horien barruan, Hernanin mahai ingurua izango da datorren asteartean, Herri-

tarrek erabaki ahalmena berreskuratzen du izenburua. Antolatzaileen esanetan, AHT edo Urnietako errauskailua dira ahalmen hori ia erabat galduta dagoenaren bi adibide garbi. Inoiz herritarrek era-

bakitzeko ahalmenik izan al dugu? Noiz galdu dugu? Nola berreskuratzen? Horiek dira Eskalante, Paskual eta Egilaz sakonduko dituzten puntuetako batzuk. Andragoto, Izipuzia 13an dago. □

## HITZ BITAN

### ✓ BERTSOLARITZA

**Semifinala gaur Eskoriatzan.** Gipuzkoako bertsolari txapelketako semifinala jokatu da gaur arratsaldean Eskoriatzan. Estitxu Eizagirre, Aitor Mendiluze, Maialen Lujanbio, Arkaitz Goikoetxea, Amaia Agirre eta Bixente Gorostidi arituko dira kantuan. Saioan aurrea egiten duena finalera pasako da zuzenean. Saioa 17:00etan da, Eskoriatzako kiroldegian. Beste bi semifinalak azaroaren 23an eta 30ean jokatu dira, biak igandean eta 17:00etan.

### ✓ KAROBI ELKARTEA

**Barrikotea abenduaren 5ean.** Karobi Elkartek barrikotea antolatu du abenduaren 5erako. Nahi duen guztiak izena ematea libre du. Elkartearen bertan apuntatu behar da.

### ✓ TIROA

**Olaberriko tiro-lekua zabalik gaur.** Aurreko igandean Txirtako bazkideak Olaberriko tiro-lekuan entrenatzeko aukera izan zuten. Esperientzia ondo atera zen eta igande honetan ere nahi duenarentzat zabalik izango da, 10:30etatik aurrera. □



### ESKERTZA

**DOLORES ALBERDI ALDASORO**  
"piper"  
(Juan Jose Larrarteren alarguna)  
(GOIAN -BEGO)

Azaroaren 8an hil zen.

Haren seme-alabak eta gainerako ahaideek eskerrak ematen dizkizute samin-agurra bidali zenutenei eta baita bere hiletara etorri zinetenei guztioi ere.

### ZERBITZUAK

#### ☎ TELEFONOAK

- ▶ Taxiak: 943 550093
- ▶ Udaltzaingoa: 943 333288
- ▶ DYA: 943 464622
- ▶ Autobusak: 943 556662
- ▶ Anbulatorioa: 943 006666
- ▶ Jokalari anonimoak: 943 331103

#### ☎ FARMAZIAK

- ▶ Egunez: Correa Perkaiztegi 8 ☎ 943 551933
- ▶ Gaez: Rodriguez Lasarte. Nagusia 42 ☎ 943 361774

### IRAGARKI MERKEAK

Iñigo Royo Masajista. Ajuste neurologiko eta bertebrala, naturoterapia, masajea, reflexologia, auriculoterapia,.... ☎ 943 33 28 94 - 626 80 76 33

Pertsona bat behar dugu haurra zaindu eta etxeko lanak egiteko. 2 egunetan bertan egin beharko luke lo: ☎ 943 55 64 39 (20:00etatik 22:00etara deitu).

Erloju bat galdu da, Seyco markakoa, Balantxako aldatatik Osiñagako bidea bitartean: ☎ 943 33 02 00

Pisua salgai zentroan: 3 habitazio, kalefazioa eta balkoi handia. ☎ 943 21 99 27

## Goiplak



### PLADUR MUNTATZAILEAK :

APALAK, EGONGELARAKO ALTZARIAK, SABAI FALTSUAK, TXOKO BEREIZGARRIAK, PARETA BANATZAILEAK, ISOLAMENDU TERMIKOAK ETA AKUSTIKOAK, SABAI MODULARRAK


**ERAKUSTOKIA: GUDARIEN ENPARANTZAN**  
OSTIRALETAN 9:00etatik 13:00etara - 15:00etatik 19:00etara  
LARUNBATETAN 9:00etatik 13:00etara

Tel.: 678 60 64 71

- HERNANI

### HORTZ KLINIKA

*Garmendia*



Odontologia orokorra

Txirrita kalea 13 -1ª ezk.  
Tel.: 943 55 34 92



Zapa 8 - ☎ 943 33 15 06 -



TXIMELETA OPARIAK  
Txirrita 10 - 943 55 23 95